

Ziberjazarpena ulertzen

Jakin beharreko gauzak



Zer da ziberjazarpena?

Mundu digitalean ematen diren eraso digitalak

Indarkeria digitala ziberjazarpena bihurtzen da denboran zehar errepikatzen denean eta norbaiti min egiteko asmoz egiten denean. Adingabeen artean, adingabe baten eta heldu baten artean edo helduen artean gerta daiteke.



Eraso digital motak

Indarkeria digitala eragiteko modu asko daude

Irainak, mehatxuak, umiliazioak, kalte erreputazionala eragitea (norbaiti buruzko zurrumurruak eta gezurrak zabaltzea, iruzkin mingarriak, irudiak edo bideoak zabaltzea), biktimaren informazio pribatua argitaratzea, umorez edo erronka biralez mozorrotutako indarkeria, mundu digitalean baztertzea eta parte hartzen ez uztea, identitatea ordezkatzeko, sexu-eraso digitalak, "stalking" -a...



Ziberjazarpenaren ondorioak (Biktimak)

Somatizazioak

- Etengabeko buruko edo tripako minak, gaixotasunak...

Bapateko aldaketak

- Umore aldaketak, gustokoak dituen gauzak egiteari uztea, aldaketak elikaduran...

Antsietatea

- Bereziki mugikorren jakinarazpenak entzutean edo eskolara joan aurretik. Lo egiteko arazoak, errendimendu akademikoa okertzea...

Depresioa

- Apatia, autoestimu baxua, isolamendua, lagunak egiteko arazoak eta komunikatzeko zailtasuna. Pentsamendu eta ideia suizidak...



Ziberjazarpenaren ondorio psikologikoak jazarpen fisikoarenak baino sakonagoak dira eta biktimek denbora gehiagoz jasaten dituzte.

Erasotzaileentzako ondorio penalak

14 urtetik beherakoek erantzukizun zibila dute baina ez penala

14 eta 18 urte bitartean erantzukizun zibila eta penala dute. Legezko tutoreak beti dira beren tutoretzapeko edo seme-alaben ekintzen erantzule subsidiarioak.



Arrisku baldintzak eta prebentzioa

Jazarleak izateko arrisku-baldintzak: jazarpen fisikoa jasan edo egin izana. Mugarik eta kontrolik gabe sare sozialak erabilera. Familiaren babes eza. Familiak indarkeria justifikatzea. Deskonexio morala. Hezkuntza autoritarioak eta abusuak ere arriskua areagotzen dute.

Prebentzioa: Autoestimua eta enpatia adingabeekin lantzea. Komunikazio trebetasunak eta trebetasun sozialak lantzea. Eredua izan.

